Hernaniko Udala

HERNANIKO UDAL BARATZAK ERABILTZEKO BAIMENA EMATEKO DEIALDIA ETA BALDINTZAK

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua da Antziolan (HI) SG.01 eremuan eta Sagastialden (HI) SG.02 eremuan dauden aisialdirako 70 udal baratzen erabilera, gozamena eta aprobetxamendurako baimenak emateko baldintzak ezartzea.

Baratzen eta haien instalazioen ezaugarriak «Hernaniko Baratze Parkea» proiektuan jasotakoak dira.

Parkeak guztira 30 m²-ko 70 partzela ditu eta bi eremutan banatuta daude:

- Antziola (HI) SG.01 eremuan: 24 partzela.
- Sagastialde (HI) SG.02 eremuan: 46 partzela.

Onuradun suertatzen direnei, baimena emango zaie aipatu partzelak erabili eta ustiatzeko, beti ere Agiri honetan zein 2013ko maiatzaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako *Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* zehazturikoa betez eta jarraikiz.

2. Baimenen iraupena.

Baratzak erabiltzeko baimenak urtebeterako emango dira eta gehienez ere lau urte arte luzatu ahalko dira (hiru luzapen aukera).

Urteko luzapenak automatikoki egingo dira aldeetako bakar batek ere ez badu aurkakorik adierazten epea bukatu baino hilabete bat lehenago.

Bukatzen denean erabiltzaileak baratzea garbi eta hurrengo erabiltzaileak lantzeko moduan utzi beharko du, erabilera epearen azken hilabetean.

3. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

a) Hernaniko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez deialdi hau argitaratu baino sei hilabete lehenagotik.

b) Hernaniko Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

c) Beste baratze ekologiko baten erabiltzaile den bizikidetza-unitateko kide ez izatea. Bizikidetza unitateko eskabide bakarra onartuko da.

d) Eskatzaileak edo bere bizikidetza-unitateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lursailik, Hernaniko udalerrian.

e) *Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* zehaztutako zehapenik ez izatea lehenago aisialdirako baratze ekologiko baten erabiltzaile izan delako.

Hernaniko Udala

Eskatzaileek inprimakiko erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa betetzen dutela sinatzen dute. Adierazpen horretan ziurtatzen da eskatzaileak adierazitako baldintzak betetzen dituela.

Era berean, eskatzaileak horrela baimenduz gero, Udalak ofizioz egiaztatuko ditu ezarritako eskakizunak betetzen direla (d baldintza izan ezik). Kontrako kasuan, horrela egiaztatzen duten egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Zozketan parte hartzeko interesa dutenek nahitaez eskabidea aurkeztu beharko dute, oinarri hauen I. Eranskin gisa doan eredua erabilita.

Eskabide-orriak behar bezala bete eta aurrez aurre Udalean bertan Herritarren Harrera Zerbitzuan (Gudarien plaza, 1) edo Hernaniko Udalaren Egoitza Elektronikoaren bidez (www.hernani.eus) aurkeztuko dira hogei (20) egun naturaleko epean deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oinarri hauen I. Eranskin gisa doan eskabidearekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da nahitaez:

- NANaren edo legez ordezkatzen duen dokumentuaren kopia.
- Onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko zinpeko aitorpena, oinarri hauen II. Eranskin gisa doan ereduaren arabera.

6. Onartutakoen behin-behineko eta behin betiko zerrendak

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan eta horiek egiaztatu eta gero, Udalak jende aurrean jarriko du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Behin-behineko zerrenda Udaleko iragarki taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko da.

Interesdunek 10 egun naturaleko epea izango dute, Udaleko iragarki taulan zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, behin-behineko zerrendari bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aurkezteko epea igaro eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

Behin betiko zerrendetan onartuta egoteak ez du esan nahi zuzenean adjudikatuko zaienik partzela. Partzelen lagapena hurrengo atalean azaldu bezala gauzatuko da.

7. Baratzen esleipen prozedura: zozketa publikoa

Baratzak Hernaniko Udaleko idazkariaren aurrean egingo den zozketa publiko bidez esleituko dira.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzeko iragarkian, zozketaren eguna eta ordua zehaztuko dira eta baita eskatzaile bakoitzari ausaz esleitutako zenbakia ere. Herriko hedabideetan ere jakinaraziko da.

Zozketa bi fasetan garatuko da:

1. Lehenengo zozketan onartutako eskaeren artean zeintzuk lortzen duten partzela zehaztuko da. Zozketa hau soilik egingo da eskaintzen diren partzela kopurua baino eskaera gehiago badaude.

2. Bigarren zozketan partzela zehatzen banaketa egingo da.

Aurreko deialdian esleipenduna izandako norbait 1. zozketan esleipendun suertatu bada, aurreko baratze bera esleitzeko aukera izango du, beti ere eskaera-orrian hala adierazi badu. Ondorioz baratze hori bigarren zozketatik kanpo geratuko da.

8. Esleipendunen behin-behineko zerrenda

1. Esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda argitaratuko dira Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web-orrian.

Zerrenda horietako edozeinetan azaltzen diren pertsonek erreklamazioak aurkeztu ditzakete zerrenda horren kontra 3 egun naturaleko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Behin-behineko esleipendunek bete beharreko baldintzak egiaztatzerakoan behin betikoak bihurtuko dira. Kontrako kasuan (hau da, esleipendunak plegu honetan edo indarrean dagoen araudian zehaztutako baldintzak ez baditu betetzen) pertsona horri dagokion baratzea libre geratuko da eta berriro esleituko da, itxarote-zerrendaren hurrenkera jarraituz.

9. Esleipendunen behin-betiko zerrenda eta itxarote zerrendaren kudeaketa

- Erreklamazio epea pasa ondoren edo bere kasuan hauek ebatzita, Hernaniko Udalak behin betiko zerrenda onartuko du eta baratzeak esleituko dira.

- Era berean, behin betiko itxarote-zerrenda eratuko da.
  Zerrenda hau baratzea edukitzeko baldintzak bete arren zozketan esleipendun suertatu ez direnek osatuko dute.
  Itxarote-zerrendak eragina izango du hutsik geratutako baratzeak esleitzeko, alegia, hasieran aukeratutakoren batek uko egin edo galtzen badu esleipendunaren izaera. Kasu horretan baratzea esleituko da lehenengo onuradunari 4 urteko epea betetzeko falta zaion denborarako.

- Behin esleipen prozesua itxi eta behin betiko itxarote zerrenda eratutakoan, eskaera berririk baldin badago, agiri honetako III. eranskinaren bitartez eskaera egin daiteke. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxarote-zerrendan sartuko dira, zerrenda horretan sartuta daudenen atzetik betiere eta eskabideen ordena kronologikoan.

- Hutsik geratu eta aurrerantzean erabileraren epealdian hutsik geratzen diren baratzen esleipen berriak urtean hiru aldiz egingo dira: martxoan, ekainean eta irailean. Baratza hutsen esleipen berriak itxaron zerrenda erabiliz egingo dira.

- Esleipenaren gehieneko epea amaitutakoan –4 urte– Udalak beste deialdi bat egingo du baratzeak esleitzeko.
  Aurreko denboraldian baratzeak erabili dituzten onuradunek deialdi berri horretan izen ematea edukiko dute.

10. Behin betiko esleipenaren ondorengo betebeharrak

- Bermea edo fidantza ezartzea.
- Baratzaren erabileragatik dagokion tasa ordaintzea.
- *Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* eta agiri honetan zehaztutakoa betetzea.

Hernaniko Udalak esleitutako baratzeak ikuskatzeko eta esleipendunek ezarrita dituzten betebeharrak eta obligazioak benetan betetzen dituzten egiaztatu ahalko du une oro.

11. Bermea, tasak eta gastuak

- **Bermea:** esleipendunak ordenantza fiskaletan zehaztutako 100 €ko fidantza jarri beharko du esleipenaren unean, utzi zaion ondasun publikoa ondo erabiliko duela bermatzeko. Baimenaren epea bukatzean itzuliko da fidantza hori, baratza egoera onean utzi bada. Transferentzi bidez ezarriko da fidantza.

- **Tasa**: esleipendunak ordenantza fiskaletan jasotako tasa ordaindu beharko dio Udalari urtero. Lehenengo urtean 100 €-koa izango da. Zenbateko hori urtero eguneratuko da ordenantza fiskaletan KPIaren arabera.
Lehenengo ordainketa esleipenaren unean egingo da eta urtebeteko eperako izango da. Transferentzi bidez ordaindu beharko da.
Hurrengo urteetan, luzapena egonez gero, tasa ordaindu beharko da baimenaren urtea amaitu baino lehen, udalak egutegi fiskalean finkatzen duen epean. Ordainagiriak helbideratu ahalko dira nahi izanez gero, dagokion inprimakia beteta. Urtean zehar baja eskatuz gero, zati proportzionala kobratuko zaio erabiltzaileari baja onartuz gero.

Bermea zein tasaren ordainketak Kutxabank-eko ES27 2095 4408 5510 6121 1446 kontuan egin beharko da izen-abizenak eta NAN adierazita; ordainketen egiaztagiriak Udalean entregatu beharko dira.

- **Gastuak:** erabiltzaileak baimenaren indarraldian zehar baratzaren laborantzak dakartzan gastuen kargu egin beharko du: ongarriak, landatutako landareak, eta lurra lantzeko beharrezkoak diren gainerakoak. Horrez gain, lursaila, ekoizteko moduko behar bezalako zaintze baldintzetan mantendu beharko du.

12. Erabilerarako baldintza orokorrak

a) Esleipendunak lursaila baratze gisa soilik erabili dezake. Lortzen diren produktuak bakar-bakarrik etxeko kontsumorako izango dira.

b) Esleipendunak, beraien etxeetako hondakin organikoak auzo konpostaren bidez kudeatzea behartuta daude, eta ez zaie atez ateko zerbitzuaren bitartez hondakin organikorik jasoko.

c) Ezingo da, inolaz ere, inongo animaliarik eduki eta gorde, hazi eta ustiatu baratzeetan.

d) Erabat debekatuta dago txabolarik edo bestelako eraikinik instalatzea baratzeetan. Era berean, debekatuta dago paisaia hondatzen duen elementurik jartzea, besteak beste, bidoiak, gordailu osagarriak, txapak, bereizgailuak, parrillak, negutegiak edo antzekoak. Esleipendunak ezingo du jarri lurra lantzeko ez den bestelako elementu espezifikorik;

hala nola, barbakoak, estalpeak, etxetxoak, eta abar, ez lurzoruaren gainean, ez lurpean.

e) Udalak izendatutako langileek, Udaltzainek edo lan horretarako izendatutako pertsona edo entitateak, aldian-aldian, baratzeen erabilera ikuskatuko dute eta horretarako ez da beharrezkoa izango erabiltzaileari aldez aurretik abisatzea.

f) Baimenak dirauen bitartean, aurreko paragrafoan aipatutako ikuskapenetan baratze edo lursailen baten egoerari buruzko txostena bitan txarra edo aurkakoa bada, erabilera baliogabetuko da eta baja emango zaio.

g) Udalak baratzeari jarritako mugak errespetatuko dira denbora guztian.

h) Baratzeak edo lursailak zabalik egongo dira eta ezingo dira itxi, tartean hesolak edo beste elementu batzuk jarriz.

i) Elkartea arduratuko da baratzeko sarbideak egoki mantentzeaz eta horretarako behar diren mantentze-lanak egingo ditu aldian-aldian.

j) Lursailen erabilera ezin dakioke inolaz ere beste inori laga edo besterendu; halaber, debekatuta dago lursailak, osorik edo zati bat, beste pertsona bati okupatzen edo erabiltzen uztea, aldi baterako bada ere. Betebehar horiek ez badira betetzen, baimena automatikoki bertan behera geldituko da.

k) Udalak baratze horietakoren baten beharra izanez gero, baratze hori erabiltzen duenak lehentasuna izango du baratze berri bat lortzeko garaian.

l) Era berean, instalazioen funtzionamenduaren, txukuntasunaren eta segurtasunaren erantzule solidarioak izango dira.

m) Debekatuta dago instalazioen barruan (baratze, bide publiko, zerbitzuen zonaldea etab.) lau gurpileko ibilgailuak aparkatzea berariaz baimenduta dagoen tokitan izan ezik.

13. Lurren aprobetxamendurako baldintzak

1) Baratzea lantzeko esleipenduna behartuta dago lagatako partzela lantzera; eta baratzeen aprobetxamenduak honako hau bete beharko du:

a) Baratzeetan tokiko eta garaiko espezieak bakarrik landatuko dira: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, babarrunak...; bai eta inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, baita aromatikoak eta sendabelarrak ere.

b) Erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzailerik landatu; ezta legez onartua ez dagoen bestelako landarerik ere.

c) Ezin da zuhaitz eta zuhaixkarik landatu, ezta fruta-arbolak ere.

d) Ez da onartuko lurrak, zorua edo azpiko lurra narriatzeko arriskua duten landareak edo barazkiak landatzea.

e) Era berean, debekatuta dago udal baratzak mugatzen dituen hesian landaredia edo bestelako elementurik jartzea.

f) Debekaturik dago larre hondakinak edo baratzetako laborantza hondakinak erretzea, baita aisialdirako baratze ekologikoen eremuaren barnean inolako surik piztea ere.

g) Baratzeetan ezingo dira materialak edo tresnak bildu edo pilatu.

h) Ezingo da pozoirik erabili, zeporik, tranparik edo perdigoi edo beste tresna edo tramankulurik, mekaniko zein natural, lurreko sarbidea galarazteko edozein hegazti, animalia edo pertsonari.

i) Lurra lantzeko ezingo da trakzio mekanikoko gailurik erabili. Udalak erabiltzaileen eskura jarritako lanabesak erabili behar dira.

j) Hasiera batean lagatzen den lursaila egitura eta azalera mantenduko dira, Udalak jarritako muga ezingo da aldatu, ezta inolako obra edo itxitura motarik egin (harri, soka, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin). Horren harira, debekatuta egongo da elementu mugatzaileak erabiltzea landareak edo bestelakoak zintzilikatzeko. Era berean, mugetatik kanpo ezingo da ezer landatu. Muga barruan landatutakoak ere muga barruan geratu behar du, ezingo da kanpora atera.

k) Baratzeak edo lursailak zabalik egongo dira eta ezingo dira itxi, tartean hesolak, sokak edo beste elementu batzuk jarriz.

l) Baratzeak eskatzen dituen lan guztiak egitea, batik bat barazkiak biltzea eta partzela belarrez garbi edukitzea, izurriteak ekidite aldera.

m) Lursailean ezin dira erabili ez plastikozko ez burdinazko ezta tratamendu edo jatorri kimikorik duen materialik (aglomeratuak, hormigoia...): botilak, makilak, sareak eta abar. Material naturalak erabili daitezke neurrian, beti ere, inguruari aldaketarik eragiten ez badio (paisaiari, ondoko partzelari, lursailaren mugari eta abar). Materialak erabili baino lehen, Udalari kontsultatu beharko zaio.

2) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutakoan zuten egoera beretan mantentzea, behar bezala zainduta. Lursailak eta instalazioak garbi egon beharko dira uneoro:

a) Baratzean lurra lantzeko edo garbitzeko edo beste edozein erabileran lurzoruan kutsadura eragin dezaketen produktuak erabiltzea debekatuta dago.

b) Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak erabilera eta garbitasun egoera egokietan mantendu, zaindu eta errespetatu beharko dira. Erabiltzaileen gehiengoak elementu komunak mantentzeko erabakitzen dituen erabakiak bete beharko dira ezinbestean. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu beharko ditu elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko.

c) Erabiltzeko emango diren elementu komunak eta lanabesak egoki mantentzea eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratzeei edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonek eragindakoak izan arren.

d) Erabiltzaile berriek erabiltzeko moduan itzultzea baratzea Udalari, lizentziaren epea amaitzen denean edo, lizentziari uko egin edo bertan behera uzten den kasuetan, erabakia gauzatzen den unean.

3) Baratzeetako beste erabiltzaileei eragozpenik ez sortzea. Ez erabiltzea kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemarik. Baratzean lurra lantzeko lanetan egonaldia girotzeko musika ekiporik ez da erabiliko.

4) Baimenaren titularrak aurreko edozein arau betetzen ez badu, horrek ekarriko du titularrak lizentzia galtzea.

14. Elkartearen eraketa.

Behin betikoz esleipendun diren pertsonak derrigortuta egongo dira baratzak kudeatzeko elkartea eratzera, horren parte izatera eta Zuzendaritza Batzorde bat izendatzera, elkartearen interesak kudeatuko eta ordezkatuko dituen ordezkaritza-organoaren lanak egingo dituena, batzar nagusiaren xedapen eta jarraibideekin bat etorriz.

Zuzendaritza Batzordearen barruan ondorengo kideak izango dira: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta gutxienez bokal bat eta gehienez hiru bokal. Eta bere eginkizunetako bat, udalarekin eta Baratze Parke-Sarea proiektuko beste eragile batzuekin bitartekari-lanak egitea izango da.

Halaber, elkartearen xede izango dira, Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantentzea egitea.

Elkartea eratzen ez bada, edo elkartean parte hartzeari uko egiten bazaio, lursaila erabiltzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

15. Elkartearen funtzioak.

Hernaniko Udalak, uko egin gabe jabetza publikoaren erabilera erregulatzeko duen obligazioari, uste du Hernaniko udal baratzetako esleipendunek, elkartearen bidez, jardueraren kudeaketa arruntean jardun behar dutela; era horretan, eguneroko kudeaketaren ardura bereganatzeko.

Elkartearen funtzioak izango dira, besteak beste, honako hauek:

- Instalazioak eta jarduerak kudeatzea, horien plangintzaren bidez, eta saiatzea esleipendunaren interesak eta legezko interesak bateragarri egiten.
- Jarduerak garatzearen ondorioz sortu daitezkeen gorabeherak erabakitzea.
- Mantentze-lan arrunta egitea; hau da, elementuak erabilera arruntean hondatutako elementuak konpondu eta berriro jartzeko jarduerak.
- Urteko memoria bat aurkeztea, hor agertuko ditu aurreko urtean egindako jarduerak, memoria ekonomikoa, hartutako akordioak, elkarteko kideen zerrenda, Zuzendaritza Batzordearen aldaketak, eta abar. Era berean, aurreko urtean egindako bileren akten kopiak erantsitako dira.
- Instalazioen garbiketaz arduratuko da. Horretarako, garbiketa egutegia aurkeztu behar du Udalean, eta hala badagokio, kontratatutako enpresarekin sinatutako mantentze kontratua.
- Baratze ekologikoen jarduerak sortzen dituen hornikuntza gastuez arduratuko da (ongarriak, landareak...)
- Udalak erabiltzaileen eskura jarriko dituen laborantzarako tresna zein lanabesen inbentarioa eramango du. Halaber, horien erabilera egokia kontrolatuko du, eta beharrezkoa ikusiko balu, tresneriaren mailegua arautu ahal izango du.
- Elkarteak ordezkari bat izendatuko du Udalarekin harremanetan jartzeko. Erabiltzaileen beharrak, kezkak, intzidentziak eta bestelakoen berri emango dio ordezkariak Udalari. Gainera, hala adosten badute, urtean, gutxienez, aurrez aurreko bi bilera egingo dira.

16. Formakuntza ikastaroa

Esleipendunek derrigorrez parte hartu beharko dute Udalak antolatzen dituen nekazaritza eta baratze zaintza ekologikoko praktika onen ikastaro teoriko eta praktikoetan.

17. Nekazaritza ekologikoa.

Baratze erabiltzaileek ez dute erabiliko lurrari, azaleko urari eta akuiferoei kalte larririk eragin ahal dien produktu fitosanitariorik edo bestelako ongarririk. Ezta atmosferara partikulak isuri ere, pertsonei, faunari zein florari kalteak eragiteko arriskua badute. Era berean, ezingo da erabili zorua kutsa dezakeen bestelako garbiketa produkturik ere.

Halaber, erabat debekaturik dago lurrean edozein produktu kutsatzaile isurtzea, lurrean kalte handia sor dezakeena, alegia. Izurriteen eta gaixotasunen aurka irtenbide naturalak erabiliko dira. Lurra gai organikoaren (konposta, simaurra, hondakin organikoak eta abar) bidez ongarrituko da.

Ez da erabiliko ongarri artifizialik.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza teknika berriei uko egin gabe, burutuko den nekazaritza ekologikoa izango da. Hortaz, A.Dehovelen definizioari jarraituz, ez da erabiliko produktu kimikorik, hala nola:

- Kimikoki eraldatutako produktu naturalak.
- Tratatutako material begetala edo animalien zuntzak.
- Osorik edo zati batean sintesi kimiko bidez lortutako produktuak.

Horiek horrela, Hernaniko Baratza Parkearen lursailak erabiltzeko nekazaritza ekologikoko honako arau hauek hartu beharko dira kontuan:

Produktuak edo lanak	*Debekatuta daude*	*Baimenduta daude*
Ongarriak	Sintesiko ongarri organiko guztiak (Merkatu espainiarrean merkaturatzen diren guztiak) eta kutsaturiko produktuekin sorturiko konpostak (pestizidekin eta herbizidekin trataturiko lastoa, simaurra, belarra eta ongarri organikoa). Ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesioak, kare bizia, eta abar) prozedura kimikoen bidez lortzen badira.	Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoko prozesutzat hartuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, eta kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak. Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak eta abar).
Tratamendu fitosanitarioak	Intsektizida, fungizida eta akarizidak eta sintesi kimikotik eratorritako beste pestizidak edo produktuak erabiltzea.	Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoinako salda eta abar). Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).
Belar txarrak	Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea.	Belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabil daitezke:

		estaltzaile organikoak (lastoa, belarra, hostoak... plastiko itxura dutenak debekatuta egongo dira), jorrai naturala edo erdi- eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).
Haziak eta landareak	Laborantza kimikotik datozen birlandatzeko barazkien erabilera. Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluen erabilera. Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako hazien erabilera. Edozein mota eta klasetako organismoak, genetikoki moldatuak (transgenikoak).	Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera. Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez badituzte.

Garatu beharreko laborantza ekologiko horrek ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

18. Ordutegia.

Esparruan lan egiteko ordutegi jakin bat ezarriko da, eta baratzeen erabiltzaileei haren berri emango zaie. Erabilera xede horretarako ezarri den ordutegiaren barruan gauzatu beharko da.

Nolanahi ere, baimenak edo eskumena duen organoak gerora emandako egintzak finkatutako ordutegia aldatu ahal izango du, kasuan kasuko arrazoiak direla-eta.

19. Lanabesak.

Hernaniko Udalak guztien erabilerarako lanabesak helaraziko dizkio Elkarteari. Urtero, Elkarteak hasierako inbentarioa mantentzen dela berretsi beharko dio Udalari; eta, beraz, Elkarteak falta diren edo hautsita dauden erremintak ordezkatu, eta hondatuta daudenak konpondu beharko ditu.

20. Giltzak.

Udal baratzetako erabiltzaileei, esleipenarekin batera aldagela-erreminten etxolara sartzeko giltza emango zaie. Giltza hori galduz gero, erabiltzaileak giltza berriaren eskaera egin beharko du, eta dagokion prezioa ordaindu. Lagapena amaitutakoan, giltza hori itzuli beharko da.

Bestalde, norberaren aldageletako armairua ixteko bakoitzak bere giltzarrapoa erabiliko du. Udalak ez du kandadurik jarriko.

21. Hondakinen trataera.

- Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da udal baratzaren eremua (lursailak, aldagelak eta erreminten gela) garbi mantentzea.

- Baratzeko jardunetik sortutako hondakin organikoak konpostatu beharko dira Udalak horretarako prestatutako gunean edo baratze bakoitzean zuzenean. Konposta prozesua bermatzeko egin beharreko lanak (materiala zatikatuta bota, nahastu, lekualdatzeak eta abar) erabiltzaileen ardura izango da. Udalak ez du Udal Baratzetan sortutako hondakin organikorik jasoko ezta kudeatuko ere. Bertan sortutakoa tokian bertan kudeatu behar da.

- Gainontzeko hondakinen bilketarako Hernaniko Udal Baratzetako Elkarteak hondakinen bilketa sisteman parte hartzeko eskaera egin beharko du. Horretarako, dagokion eskaera-orria bete beharko du, eta Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzan zehaztutakoak bete beharko ditu.

22. Ingurumen hezkuntza.

- Eskolako umeek aisialdirako baratze ekologiko horiek bisitatu ahal izango dituzte, baratzeotan egiten diren jardueren berri izateko, eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren gaineko balioak ezagutzeko.

- Alde horretatik, erabiltzaileek, ezinbestean, aukera eman beharko diete eskoletako taldeei baratzeetara sartzeko, Udalak Hezkuntza arloko administrazioekin edo beste herri administrazioekin antolatutako bisiten kasuan.

- Kasu horietan, erabiltzaileek lagundu egin beharko die taldeko arduradunari edo irakasleari, laborantza teknikak eta ezaugarriak azalduko zaizkie: lurraren prestaketa, ongarriztatzea, landaketa, ureztatzea, jorratzea, izurrien garbiketa, bilketa eta hondakinen kudeaketa.

- Eurek dakitena erakusteaz batera, lurrari eta naturari lotutako balioak transmititu ahal izango dituzte erabiltzaileek: landatzeko metodoak, erabilitako espezieak, nekazaritza tradizional eta ekologikoaren ezaugarriak eta garrantzia, ingurumenarekiko errespetua eta datozen belaunaldiekiko erantzukizuna.

23. Erabiltzaile izaera galtzea.

Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean jasotako arrazoiengatik galdu ahalko da erabiltzaile izaera, bai 22. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik eta bai bertan zehaztutako arau-hausteen zehapenen ondorioz.

24. Laga zireneko egoeran itzultzea.

- Baratza esleipendunari laga zitzaioneko baldintza berdintsuetan itzuliko da, lurra kanpoko ekarpenekin funtsean aldatu gabe.

- Erabiltzaileak gauzak hasierako egoeran itzuli beharko ditu eta, hala ez baleude, konpondu beharko ditu, instalazioak eguneroko erabilerak eragindakoa baino hondamen handiagoa badu.

- Lanabesen kasuan, erabiltzaileak baratzea uzterakoan, hasieran jaso zituen egoeran edo kopuruan utzi beharko ditu.

- Erabiltzaileren batek ez balu gauzak konpontzeko obligazioa beteko, Udalak zuzenean egin ahal izango du, kostua erabiltzaileari egotziz, Administrazioak kasu horietarako dirua eskuratzeko dituen botereak erabiliz.

25. Ikuskaritza eta baratzen programaren funtzionamendurako argibideak.

Ikuskaritza:

- Udalak izendatutako teknikariek egingo dituzte ikuskapen- eta kontrol-lanak; horiek *Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* zein Baldintza-agiri honetan arautzen diren gaien inguruko zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-jarduerak gauzatu ahal izango dituzte.

- Teknikariez gain, udaltzainek ere egin ahal izango dituzte ikuskatze-lanak, eta baratzeetara joan ahal izango dira horien kudeaketan eztabaidak eta liskarrak sortzen badira, erabiltzaileen artean nahiz beste pertsona batzuekin.

- Baratzeen erabiltzaileek bertara sartzen utzi beharko diete pertsona horiei, eta horiek eskatzen dizkieten argibideak eman beharko dituzte, baratzeen kudeaketari, erabilerari eta ustiapenari dagokion jarraipena egin ahal izateko.

Argibideak:

Alkateak edo hark izendatu lezakeen zinegotziak eman ahal izango ditu aisialdirako baratze ekologikoen programaren jardueraren alderdi orokor zein zehatzei buruzko jarraibideak, esaterako, lan egiteko erak, ordutegiak, labore-motak, eta izaera orokor zein bereziaz zehazteko. Baratzetako erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide hauek eta, baita ere, Alkatetzak, Zinegotzi delegatuak edo horren ardura duen Udaleko langileek gai horren beraren gainean erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak.

26. Araubide juridikoa.

Baldintza-agiri honetan esplizituki aurreikusi ez diren egoeretarako kontuan hartuko da *Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorra* (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 8. zkia, 2013-05-13), Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Ondare Legea eta kasuari aplikagarri izan dakiokeen gainontzeko araudia.